



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Gobierno Municipal
Udal Gobernu



HERRERAKO KIROL PISTA ETA APARKALEKUA, ZABALIK

Gaurtik aurrera, ostirala, zabalik dituzte herritarrek Herrerako kirol pistak eta lurrazaleko aparkalekua.

“Garai batean saihesbideak Herrerarantz zuen irteeratako batean eginiko lan bat da” adierazi du Enrique Ramos Proiektu eta Obren zinegotziak. “Leku bat berreskuratu dugu auzoarentzat, inguruko herritarrek dituzten beharrei erantzuteko, eta aparkatzeko beste leku bat izateaz gainera, kirol eta aisia eremu berri bat izango dute duela gutxi zabaldutako Arrobitxulo parkearen ondoan”.

Lanak 2015eko abenduan adjudikatu zitzaizkion URBYPOLAN SL enpresari, 282.664,40 euroko zenbatekoaz (BEZ barne). Lizitazio aurrekontua 356.542,02 € izan zen (BEZ barne), eta beherakada % 21ekoa izan zen, horrenbestez.



Aparkalekuak 55 ibilgailurentzako lekua du



Kirol pistara iristeko eskailerak Arrobitxulo parkeko pasarelatik



20 x 10 metroko saskibaloï pista

Ramosek adierazi du aparkalekuak baterian aparkatutako 55 ibilgailurentzako tokia duela, eta motoentzako eremu bat, Adif-en zubibidearen azpian. 137 metroko azalera lineala du.

“Beste elementu aipagarria kirol eremua da, 20 metro luze eta 10 metro zabal den saskibaloï pista batekin” erantsi du Proiektu eta Obren ordezkariak. “Azalera bat gorde dugu etorkizunean erabilera anitzeko kirol eremu bat ipintzeko, 25x13,5 metro ingurukoa”.

Gainera, egoteko eta paseatzeko eremu bat sortu da, Jose Elozegi Alkatea kalearekin konektatuta dagoena. 6 eserleku, edateko ureko iturri bat eta bederatzi led argi ditu. Lanak aprobetxatuz, Peruene Berri 7 eta 8 zenbakien pareko eremuaren urbanizazioa hobetu da, Helduen Eskolarako sarbide berri bat eginez, pasarela berri bat eraikiz. Hormigoizko egitura bat da, 18 metro luze eta 2,5 metro zabal.

Ramosek nabarmendu nahi izan duenez, “Arrobitxulo parkera doen pasarelatik, auzotarrek proposatuta, eskailera bat eraiki da saskibaloï pistara zuzen jaisteko. Herritarren proposamen egoki bat izan da, proiektuak aurreikusten ez zuena eta 14.000 euroko inbertsio gehigarri bat eragin duena, ondo erabilitako dirutzat duguna, nolanahi ere”.